

SARRERA



Ikusirik Euskal Giroitze Barnetegiek ezin dietela eskari guztiei erantzun, EGE (Euskal Giroitze Egonaldiak) programa sortu zen. EGE programa hau baliatzen dutenei laguntzeko asmotan sortu da eskuetan duzuen baliabide hau, ERDU izenekoa.

ERDUren helburua euskararen erabilera bultzatzeko xedea duten irakasleei egonaldia beren kasa prestatzen laguntzea da. Programa honetan EGBek lanean daramatzaten urteetako esperientziatik bildutako baliabideak, jokoak, ekintzak eta abar daude. Horiek guztiak izango dira erabilgarriak egonaldian, eta txertatu ahal izango dira beste jardueren artean.

EGE maleta edo ERDU izendatu dugun programa honen helburua kontuan izanik, bertan topatuko duzunak hizkuntzarekin lotura zuzena izango du gehienetan, eta erlazio txikiagoa besteetan; baina, azkenean, eta bere osotasunean erabilita, euskararen erabilera bultzatzea izango du helburu nagusia.

1. ZER DA?

EGE maleta izeneko kutxa honetan hainbat baliabide dituzu, zure kabuz ikasle talde batekin 3, 4 edo 5 eguneko egonaldi bat antolatu ahal izateko.



Zer topatuko duzu bertan?

- 🌀 Programa eredu bat
- 🌀 Programa zuri bat, zuk betetzeko
- 🌀 Ekintzak eta jokoak
- 🌀 Hizkuntzaren erabilera bultzatzeko baliabide nagusia
- 🌀 Hau guztia egiteko behar duzun materiala

2. ZERTARAKO?

Honekin guztiarekin egonaldia zeuk antolatuko duzu. Nahi duzuna hartu, kendu, erantsi edo aldatzeko aukera izango duzu, eta horrela egonaldiko programa osatzeaz gain, ekintza eta jokoak aurrera ateratzeko gai izango zara. Hemen dituzu hau dena egiteko irizpideak, eman beharreko pausoak (baita egonaldiaren aurretik eta ondoren ere), aholkuak eta abar.

3. NORENTZAT?

Bere kabuz 3, 4 edo 5 eguneko egonaldia prestatu nahi duten irakasleentzat pentsatuta dago maleta hau; ahaztu gabe helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea dela.

Esku artean duzuna LMH-ko 6. eta DBH-ko 1. eta 2. mailetako neska-mutilekin prestatzen diren egonaldietarako pentsatuta dago, eta gehienez 35 ikaslez osatutako talde batentzat.